

ISAAC LOPEZ-MENDIZABAL (1879 - 1977)

Otsailaren 27an, bere sorterrian hil zaigu I. López-Mendizabal jauna. Gizon gurgarria, euskal kulturagintzan gurgarririk bada.

Ixaka López-Mendizabal, larogetahamazortzi urtera hurbildu zelarik joan zaigu. Tolosan jaioa zen, 1879garren urteko apirilaren 11an. Ikerlari, idazle, eta euskal irakasle mailan lan ugari eginga zen. Gerrara arte izan zuen inprimategiaren zuzendaritzan ere ez guti; baina, behar bada, bere bizitzako lanik probetxugarriena, praktikoena, irakaskintzarako testugintzan eman zuen. Lan handiagoetarako ikasia bazen ere, euskaltzale kementsua zenez, beste inor baino lehen ohartu zen heziketarako liburu beharrez eta lan xehe ta praktiko hoiei gogotik heldu zion. Honegatik, lehen aldiko ikastolak, gerra aurrekoak ez ezik baita gerra ostekoak ere, hasierako materiala izan zuten bere emaitza horri esker.

Mendizabaldarren inprimategia hemeretzigarren mendearen lehen partean hasia zen, 1826tik aurkitzen ditugu bere berriak. Mendearen azkenaldera Eusebio López izan zen (Ixakaren aita) inprimategiaren jarriztaile. Beraz, Ixaka bere haurtzarotik bizi izan zen liburu arteko giroan. Lehen ikastaroak Tolosan bertan bete zituen eta handik Deustuko Unibertsitatera joan zen Filosofia eta Letrak ikastera, eta 1897an Salamanca-n esaminatu zen. Ikasle azkarra zen nonbait eta Filosofia eta Letrak bukatu ondorean Madrid-eko Unibertsitatera joan zen Legeak ikastera. Deretxoko Fakultade hartan bukatu zuen karrera, 1900ean. Gainera, Madrid-eko Unibertsitate hartan hartu zituen doktor tituluak ere, 1899an Filosofia eta Letretakoa eta 1903an Deretxokoa. Bere tesiak hauek izan ziren: "Cantabria. La guerra cantábrica y el País Vasco en tiempo de Augusto", 80 orrialdeko lana, eta "Fueros de Guipúzcoa".

Euskaltzaindia sortzean, 1919an, bere laguntzaile izendatua izan zen, eta 1957tik euskaltzain ohorezko izendapena zuen. Baita ere, Instituto Americano de Estudios Vascos-eko laguntzaile eta Herri-Lagunak Elkarteko bazkide (R.S.V.A.P.-ekoa).

Euskal kulturako zein aldizkaritan idatzi duen baino errazago genuke non idatzi ez duen aipatzea. Gure mende hontan

oso aldizkari guti izanen bai dira Ixakak, euskaraz edo erdaraz, bere zenbait lan argitara ez dituenak. Adibidez, ikus Jon Bilbaoren *Eusko-Bibliographia*-ren V. tomoko 215-216 orrialdeak, eta bertatik ohartuko gara Ixakaren etengabeko langintzaz.

Hala ere ongi deritzagu bere libururik aipagarrienak hautatzea, nere *Escritores euskéricos* (1968) liburuan jaso nituenak behinikpehin.

Euskarazko liburuak, haurren irakaskintzarako prestatu zituenak, honako hauek dira: *Aita Santu Amargarren Pio'ren dotriña laburra* (1907), *Zenbakiztia edo Aritmetika* (1913), *Umearen laguna* (1920) eta irakurgai hontatik atera zuen irakurtzen ikasteko *Martin Txilibitu* (1931) deritzan liburuxka, *Nekazaritza* (1929), *Seaska-Abestia* (1932) eta *Erleak, beren bizitza eta oiturak* (1933). Liburu guziok Tolosako bere inprimategian argitaratu zituen eta geroztik ere, gehienok, zenbait aldiz argitaratuak izan dira.

Baita ere, Tolosako inprimategian atera zituen, euskara ikasteko metodo hauek: *Manual de conversaci3n castellano-euskera* (1908) eta *¿Quiere usted hablar en euskera?* (1932). Gainera, bigarren hau, M. Mendiskoren laguntzaz frantzezera itzulia ere argitaratu zuen, *Voulez-vous parler le basque?* (Donibane-Lohizun, 1938). Bestalde, Bilbon, *El Euskera. El idioma vasco* (1915) hitzaldia eta Tolosako bere etxean *Diccionario vasco-castellano, castellano-vasco* (1916), geroztik hainbeste aldiz argitaratuko zena eta gure egunotan zerbait gehitua oraindik salgai aurkituko duguna.

Anaiarteko gudu madarikatuak bere inprimategia deseginik eta bere burua herbestaturik ikusi zuenean ere, kementsu jarraitu zuen euskal ikerketan eta euskararen alderako lanetan. Hainbeste aldizkaritan argitaratu zituen lanak ditugu lekuko. Baina ez aldizkarietan bakarrik, liburugintzan ere jarraitu zuen. Deserritua izan zen garaiko lanak ditugu honako hauek: *La Lengua Vasca* (Buenos Aires, 1943) eta *Gramática vasca abreviada* (Buenos Aires, 1954). Baita ere, hitzaldien separatak, Argentinako hiri nagusi horretan eman zituen hitzaldienak.

Hizkuntzatik aparteko lanak ere argitaratu zituen Buenos Aires-ko Ekin argitaldarian, *Breve Historia del País Vasco* (1945) eta *El País Vasco. Descripción general* (1946).

Guzi hoiien ondotik eta urte askoko lana burutuaz, 1958an argitaratu zuen Buenos Aires-ko argitaldari hortan *Etimologías de apellidos vascos*, 25.000 deituraren esan nahiaz, 800 orrialdeko liburua osatzen duena.

Emaitza eder hau burutu zuen Ixaka, zahar eta itsutua etorri zen bere aberrira, bere lur maite honetan ehortzi nahi zuelako. Beste ordainik ez zuen espero. Goian bego, gure lan-kide kartsua.

J. S. M.